



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko martxoaren 28a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Tuterako ETI Ikastetxe Integratu Politeknikoaren eta Corellako Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolaren hezkuntza-eskaintza areagotu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Erriberan lanbide heziketa sustatu eta garatzeko plan bat taxutu dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da onura publikoaren deklarazioa ken diezaion Hazte Oír elkarteari. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua pozik agertzen da bermatzen ari delako nafar ikasle guztiek D ereduan ikasteko duten eskubidea. Mozioa erretiratzea (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen honako foru lege proposamen honi aurkezturiko zuzenketak: "Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena. Proposamen hori 2017ko urtarrilaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa. Helburua

Zioak: Puntu hori osasun arloko langile diplomadunei dagokie, eta horiek ez dira foru lege proposamen honen xedea.

2. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lehenengo artikulua bigarren idatz-zatia kentzen da, zeren eta lanbide-karrera osasun-arloko langile diplomadunei zabaltzeari buruz-

koa baita, eta langile horiek berariaz daude lege honetatik kanpo utzita, 2016ko abenduaren 21eko 23/2016 Foru Legearen bitartez jadanik zabaldua baitago langile horien lanbide-karreraren sistema.

3. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

1.1 artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Honela geratuko da idatzita:

"Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeak eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legeak ezarritako lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua zabalduko zaie Nafarroako Gobernuako departamentu guztietako eta haren erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo guztiei, baldin eta lanpostua jabetzan badute eta haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa bada edo izan bada lanpostua urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean aurreikusitako "Fakultatibo espezialistak" edo "Bertze osasun fakultatiboak" izeneko estamentuetan sailkatzea ahalbidetzen duten titulazioetako edozein edukitzea."

Zioak: Artikuluaren testuan aipamen bat gehitu da azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legeari buruz, Lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen dienari buruz, zeren eta lege hori aplikatzekoa baitzaie lege proposamen honek aipagai dituen langile fakultatiboiei.

4. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluko a) letra kentzeko zuzenketa. Araubide juridikoa

Zioak: Puntu hori osasun arloko langile diplomadunei dagokie, baina horiek ez dira foru lege proposamen honen xedea.

5. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. artikuluko a) letra kentzeko zuzenketa. Honako testu honekin geldituko da:

“2. artikulua. Araubide juridikoa. Foru lege honetan aurreikusi ez den guztirako, aplikatuko da honako hauetan xedatutakoa: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean, Lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen dien azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legean, eta 11/1999 Foru Legea garatzeko arauak ezartzen dituen abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuan.

Zioak: Lanbide-karrera osasun-arloko langile diplomadunei zabaltzeari buruzko aipamen oro kentzen da, zeren eta langile horiek legetik kanpo utzi baitira berariaz, langile horien lanbide karreraren sistema zabaldu baitzen abenduaren 21eko 23/2016 Foru Legearen bitartez.

6. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Eragin ekonomikoak

Testu hau kentzen da: “2016ko urtarrilaren 1eko eraginarekin osasun arloko diplomadunen kasuan” (...) “osasun arloko fakultatiboan kasuan”.

Testua honela geldituko da: Hasierako koadramendua ezarritako arauekin eta prozedurarekin

bat egin ostean, kasuan kasuko zenbatekoak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera ordainduko dira.

Zioak: Testu hori kentzen da osasun arloko langile diplomadunak aipatzen dituelako, eta langile horiek ez dira foru lege proposamen honen xedea.

7. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua: ·

“3. artikulua. Hasierako koadramendua ezarritako arauekin eta prozedurarekin bat egin ostean, kasuan kasuko zenbatekoak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera ordainduko dira”.

Zioak: Lege honetatik kanpo berariaz utzitako osasun-arloko langile diplomadunei buruzko aipamen oro kentzen da, zeren eta langile horien lanbide karreraren sistema jadanik zabaldua baitago, abenduaren 21eko 23/2016 Foru Legearen bitartez.

8. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

3. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Hone la geratuko da idatzita:

“3. artikulua. Osasun arloko langile fakultatiboak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako beste departamentu baten edo haren erakunde autonomoen menpe egotera pasatzen badira, jatorrizko departamentuan edo erakunde autonomoan aitortuta zeukaten lanbide karreraren mailari eutsiko zaio.

Hasierako koadramendua ezarritako arauekin eta prozedurarekin bat egin ostean, kasuan kasuko zenbatekoak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera ordainduko dira”.

Zioak: Egokitzen jotzen da lehenengo lerrokdaren edukia gehitzea, osasun arloko langileen segurtasun juridikoa bermatzeko, beste departamentu batzuei atxikitzen zaizkienean.

9. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluko b) letra kentzeko zuzenketa. Ebaluazio batzordeak

Zioak: Puntu hori kentzen da osasun arloko langile diplomadunak aipatzen dituelako, eta langile horiek ez dira foru lege proposamen honen xedea.

10. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

4. artikuluko b) letra kentzeko zuzenketa. Hona-ko testu hau izanen du:

“4. artikulua. Lanbide karreraren sistemaren aplikazioa hedatzen zaien profesionalen ebaluazioa Osasun Publiko, Administrazio eta Osasun Kudeaketako Ebaluazio Batzordearen eskumena izanen da.”

Zioak: Osasun arloko langile diplomadunei buruzko aipamena kentzen da, zeren eta berariaz baitaude lege honetatik kanpo utzita.

11. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Egoera bereziak.

Xedapen gehigarriari “lehen” hitza gehitzen zaio.

Beste xedapen batzuk gehituz gero, zenbatu egin behar dira.

12. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Aldi baterako emandako zerbitzuak.

“Halaber, aintzat hartuko dira foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera aldi baterako kon-

tratu baten bidez emandako zerbitzuak, 11/1999 eta 31/2002 foru legeen aplikazio-esparruan.

Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomoek aintzat hartuko dituzte osasun arloko langile fakultatiboek aldi baterako kontratu baten bitartez emandako zerbitzuak, foru lege honen aplikazio-eremuan eta hark indarra hartzen duenetik aurrera, baldin eta foru lege honen erregelamendu bidezko garapenerako araudian finkatutako arauen arabera ebaluatu badira, osasun arloko fakultatiboa eremu horretan sartzen den kasuetan.

Zioak: Aldi baterako emandako zerbitzuak arautu behar dira.

13. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat, bosgarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bosgarren xedapen gehigarria. Aldi baterako emandako zerbitzuak.

Foru lege honen aplikazio-eremuan eta indarra hartzen duenetik aurrera osasun arloko langile fakultatiboek aldi baterako kontratu baten bitartez emandako zerbitzuak ebaluatuko dira erregelamendu bidezko garapenerako araudian ezartzen diren arauen arabera.”

Zioak: Ukitutako langileen segurtasun juridikoa bermatzeko, beharrezkotzat jotzen da aldi baterako emandako zerbitzuen ebaluazioa arautzea.

14. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat, seigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Seigarren xedapen gehigarria. Toki-erakunde- en menpeko osasun arloko langileak.

Toki entitateetako osasun arloko langileak foru lege honetan araututako lanbide karreraren sisteman sartu ahalko dira, baldin eta zerbitzuak ema-

ten dituzten udaleko Osoko Bilkurak hala erabakitzen badu, berariaz hartutako erabakiaren bitartez”

Zioak: Nafarroako administrazio publikoetan jarduera bera betetzen duten funtzionarioen arteko berdintasuna bermatzea.

15. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun arloko langile fakultatiboek aplikatzea.

“Foru lege honek indarra hartzen duen unetik, Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan lanpostu bat jabetzan izan eta borondatezko mugikortasun prozeduren bitartez foru lege honen aplikazio-esparruko osasun arloko kasuko titulazioa exigitzen zaien lanpostu batera sartzen diren osasun-langile fakultatiboek, Osasun Departamentuan finkatuta zuten lanbide karrerako maila aitortuko zaie”

Zioak: Osasun arloko langile fakultatiboek lanbide karrera arautu behar da mugikortasun kasuetarako.

16. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU, ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat, bigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bigarren xedapen gehigarria. Osasun Departamentutik eta haren erakunde autonomoetatik heldutako osasun arloko langile fakultatiboek aplikatzea.

1. Foru lege honek indarra hartzen duen unetik, daukaten lanbide karrera bere egoeran aitortuko zaie Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun arloko langile finkoek, foru lege honen aplikazio-eremuko kasuko osasun-titulazioa exigitzen den lanpostu bat betetzen dutenean.

2. Aplikatzekoa den araubidea foru lege honetan eta bera erregelamendu bidez garatzeko araudian ezarritakoa izanen da”

Zioak: Beharrezkotzat jotzen da ezartzea foru lege hau aplikatuko zaiela Osasun Departamentutik eta haren erakunde autonomoetatik heldu diren osasun arloko langile fakultatiboek.

17. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan aplikatzea.

“Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomoek foru lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren osasun arloko langile fakultatiboek finkatuta daukaten lanbide karreraren maila aitortuko diete, fakultatiboa eremu horretara aldatzen den kasuetan (lanpostuak lekualdatze lehiaketa bidez betetzea eta abar). Hori horrela, aplikatzekoa den lanbide karreraren araubidea apirilaren 6ko 11/1999 eta azaroaren 19ko 31/2002 foru legeek eta abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuak ezarritakoa izanen da”

Zioak: Osasun arloko langile fakultatiboek lanbide karrera arautu behar da mugikortasun kasuetarako.

18. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU, ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat, hirugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan aplikatzea

1. Foru lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren langile fakultatiboek lanbide karrera bere egoeran aitortuko diete Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomoek, eremu horretako lanpostuak betetzen ari badira. Kasu horretan, aplikatzekoa den karrera-araubidea izanen da apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile fakultatiboek lanbide karrerako sistema ezartzen duen azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legean jasotakoa.

2. Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomoek aintzat hartuko dituzte langile

fakultatiboek aldi baterako kontratu baten bitartez emandako zerbitzuak, foru lege honen aplikazio-eremuan eta hark indarra hartzen duenetik aurrera, baldin eta foru lege honen erregelamendu bidezko garapenerako araudian finkatutako arauen arabera ebaluatu badira, langile fakultatiboa eremu horretan sartzen den kasuetan.

3. Foru lege honek indarra hartzen duen unetik aurrera, Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomoek aitortu eginen dituzte Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako langile fakultatiboek emandako zerbitzuak, langileak eremu horretan berriz sartzen direnean, baldin eta langile horiek foru lege honen aplikazio-eremuko lanpostuak aldi baterako betetzen ari badira eta foru lege honen arabera ebaluatu badira.”

Zioak: Beharrezkotzat eta egokitzat jotzen da foru lege proposamen hau Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan aplikatzeko sistema ezartzea, ukitutakoen segurtasun juridikoa bermatze aldera.

19. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoak.

“1. Foru lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren langile fakultatiboen lanbide karrerako osagarriak zenbateko hauek izanen ditu urtean:

- I. maila:
- II. maila: 2.917,88 euro.
- III. maila: 5.835,90 euro.
- IV. maila: 8.753,78 euro.
- V. maila: 11.671,80 euro.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru legeetan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen ordainsarietarako ezartzen diren igoera-portzentajearen oinarrituta.”

Zioak: Langile fakultatiboen lanbide karreraren osagarriaren urteko zenbatekoak mailen arabera zehaztu behar dira.

20. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU, ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Laugarren xedapen gehigarria. Foru lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren langile fakultatiboen lanbide karrerako osagarriak zenbateko hauek izanen ditu urtean:

- I. maila:
- II. maila: 2.917,88 euro.
- III. maila: 5.835,90 euro.
- IV. maila: 8.753,78 euro.
- V. maila: 11.671,80 euro.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru legeetan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen ordainsarietarako ezartzen diren igoera-portzentajearen oinarrituta.”

Zioak: Segurtasun juridikoaren printzipioaren indarrez, egokitzat jotzen da foru lege proposamenaren testuan berariaz jasotzea osasun arloko langile fakultatiboen lanbide karreraren osagarriari dagozkion zenbatekoak, bai eta haiek eguneratzeko sistema ere.

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa. Osasun arloko langile fakultatiboei lanbide karrerako hasierako maila ematea.

“1. Foru lege honen aplikazio-eremuan sartutako langile fakultatibo finkoen hasierako maila ematen da kasuko lanbide karreraren maila esleitzuz Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakundeetan fakultatibo gisa, jabetzako lanpostu batean, emandako zerbitzu-urteen arabera; halaber, kontatu eginen dira Europar Batasuneko kideak diren estatuetako osasun sistema publikoetan osasun fakultatiboaren baliokidea den izendapen batekin emandako zerbitzu-urteak, honako eskala honen arabera: -

- 5 urte baino gutxiago, I. maila.
- 5 urtetik gora, II. maila.
- 14 urtetik gora, III. maila.
- 22 urtetik gora, IV. maila.
- 29 urtetik gora, V. maila

2. Zerbitzuan emandako urteak behar direnak baino gehiago izanez gero, kontuan hartuko dira etorkizunean mailaz igotzeko. Mailaz igotze hori eginen da foru lege honetan eta bera erregelamendu bidez garatzeko araudian ezarritako prozedurari jarraituz”

Zioak: Osasun arloko langile fakultatibo finkoak jabetzan eman dituzten zerbitzu-urteen arabera sailkatu behar dira.

22. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Lehen xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Lehen xedapen iragankorra. Osasun arloko langile fakultatiboak kasuko lanbide karrerako mailan sailkatzea hasiera batez.

1. Foru lege honen aplikazio-eremuan sartutako osasun langile fakultatibo finkoen hasierako sailkapena eginen da kasuko lanbide karreraren maila esleitzuz Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakundeetan fakultatibo gisa, jabetzako lanpostu batean, emandako zerbitzu-urteen arabera; halaber, kontatu eginen dira Europar Batasuneko kideak diren estatuetakos osasun sistema publikoetan osasun fakultatiboaren baliokidea den izendapen batekin emandako zerbitzu-urteak, honako eskala honen arabera:

- 5 urte baino gutxiago, I. maila.
- 5 urtetik gora, II. maila.
- 14 urtetik gora, III. maila.
- 22 urtetik gora, IV. maila.
- 29 urtetik gora, V. maila

2. Zerbitzuan emandako urteak behar direnak baino gehiago izanez gero, kontuan hartuko dira etorkizunean mailaz igotzeko. Mailaz igotze hori eginen da foru lege honetan eta bera erregela-

mendu bidez garatzeko araudian ezarritako prozedurari jarraituz”

Zioak: Foru lege proposamen honek ukitutako langileen segurtasun juridikoa bermatze aldera, beharrezkotzat jotzen da arautzea zein izanen den osasun arloko langile fakultatiboek lanbide karreraren mailan izanen duten koadramendua. .

23. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa. Mailaz igotzea.

“Aurreko xedapenean ezarritakoaren arabera langileak hasieran eman zaien mailatik gora igotzeko, exigitutako puntuazioa, zerbitzuko eta hobetzeko jardueren eta lanbidean eguneratzeko jardueren kontzeptukoa, egokituko da foru lege honek indarra hartzen duen egunaren eta mailaz igotzeko exigitzen den iraupen-aldia betetzen den egunaren artean igarotako denboraren proportzioan”.

Zioak: Zerbitzuko, hobekuntzako eta eguneratze profesionaleko jarduerak baloratu behar dira.

24. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa.

“Ezohiko prozedura, Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo finkoek foru lege honen aplikazio-eremuan eta foru lege honek indarra hartu aurretik emandako zerbitzuak aitortzekoa.

Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo finkoek, baldin eta lanbide karreraren sistema ezarrita ez zegoen Foru Komunitatearen Administrazioako lanpostuetan osasun arloko langile fakultatibo finko gisa lan egin badute, zerbitzu horiek aitortzeko eskatu ahalko dute”

Zioak: Aparteko izaeraz aitortu behar dira Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun arloko langile fakultatibo finkoek emandako zerbitzuak, lanbide karreraren sistema ezarrita ez zegoen Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako lanpostuetan osasun arloko langile fakultatibo finko gisa emandakoak.

25. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

"Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen bidez, Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko osasun arloko langile fakultatiboentzako lanbide karreraren sistema ezarri zen Nafarroako Foru Komunitatean. Lanbide karreraren sistema hori abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren bidez garatu zen.

Etengabeak izan dira apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen aplikazio-eremutik kanpo utzi ziren Foru Komunitatearen Administrazioako eta hari atxikitako erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo finkoen eskakizunak.

Hori dela eta, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei gehitutako zenbait zuzenketaren bitartez, kontu-sail batzuk handitu egin ziren eta beste batzuk sortu ziren, Osasun Departamentukoak edo haren erakunde autonomoetakoak ez diren osasun arloko langile fakultatibo lanbide karrera ordaintzeko.

Hori dela-eta, honako foru lege hau proposatzen da, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuei eta erakunde autonomoei atxikitako osasun arloko langile fakultatibo lanbide karreraren aplikazioa hedatzeko eta hura gauzatzeko xedez".

Zioak: Jatorrizko testuan, osasun arloko langile fakultatiboak eta osasun arloko langile diplomadunak nahastu ziren, nahiz eta azken horiek jada lanbide karrera aitortuta zeukaten abenduaren 21eko 23/2016 Foru Legearen bitartez.

26. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko testua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

"ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen bidez, Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko osasun arloko langile fakultatiboentzako lanbide karreraren sistema ezarri zen Nafarroako Foru Komunitatean. Lanbide karreraren sistema hori abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren bidez garatu zen.

Etengabeak izan dira apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen aplikazio-eremutik kanpo utzi ziren Foru Komunitatearen Administrazioako eta hari atxikitako erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo finkoen eskakizunak.

Hori dela eta, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei gehitutako zenbait zuzenketaren bitartez, partida batzuk handitu egin ziren eta beste batzuk sortu ziren, Osasun Departamentukoak edo haren erakunde autonomoetakoak ez diren osasun arloko langile fakultatibo lanbide karrera ordaintzeko.

Hori dela-eta, honako foru lege hau proposatzen da, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuei eta erakunde autonomoei atxikitako osasun arloko langile fakultatibo lanbide karreraren aplikazioa hedatzeko eta hura gauzatzeko xedez".

Zioak: Osasun arloko langile diplomadunei buruzko aipamen oro kentzen da, zeren eta langile horiek lege honetatik kanpo utzi baitira, langile horien lanbide karreraren sistema jadanik zabaldu baitzen 2016ko abenduaren 21eko 23/2016 Foru Legearen bitartez.

Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Foru Lege proposamen honi zuzenketak aurkezteko epea **2017ko apirilaren 7ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea: “Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean

sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa”. Aipatu foru lege proposamena 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Tuterako ETI Ikastetxe Integratu Politeknikoaren eta Corellako Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolaren hezkuntza-eskaintza areagotu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Erriberan lanbide heziketa sustatu eta garatzeko plan bat taxutu dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2017ko martxoaren 22an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Tuterako ETI Ikastetxe Integratu Politeknikoaren eta Corellako Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolaren hezkuntza-eskaintza areagotu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Erriberan lanbide heziketa sustatu eta garatzeko plan bat taxutu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Tuterako ETI Ikastetxe Integratu Politeknikoaren eta Corellako Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolaren hezkuntza-eskaintza areagotu dezan, gradu berrien bidez, eskualdeko enpresen beharriari erantzun eta ikasleen laneratzea lagunduko dutenak.

Halaber, departamentua premiatzen du espezializazio ikastaroak egin ditzan aipatu ikastetxeetan jadanik graduatu diren ikasleentzat eta interesa duten pertsonentzat, gizartearen eta enpresan unean-unean sortzen diren beharriaren arabera. Heziketa ziklo berrien eta espezializazio ikastaroen eskaintza eta ezarpen-egutegia definitzeko, beharrezkoa izanen da ukitutako sektore sozial eta ekonomiko guztiek parte-hartzea izatea, bai eta eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Erriberan lanbide heziketako ikasketak sustatu eta garatzeko plan bat taxutu dezan urgentziaz, lanbide heziketa publikoaren hezkuntza-eskaintza berri eta zabalago bat martxan jartzea xedatuko duena, garapen sozioekonomikoari dagokionez tokiko beharri erantzuna emate aldera”.

Iruñean, 2017ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da onura publikoaren deklarazioa ken diezaion Hazte Oír elkarteari.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita onura publikoaren deklarazioa ken diezaion Hazte Oír elkarteari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Barne Ministerioak, 2013ko maiatzean, erabaki zuen –Jorge Fernández Díaz zen orduan ministroa– Hazte Oír elkarteari onura publikoaren deklarazioa ematea. Jakina denez, elkarte horrek, bere ibilbidean, zenbait ekimen bultzatu izan ditu, LGTBI+ kolektiboak (lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualak) patologizatzeraz, estigmatizatzeraz eta, finean, zapaltzeraz bideratuak. Halatan, Hazte Oír elkarteak, “gorrotoaren autobusa” ez ezik –kolektibo horiek hala deitzen diote zorigaitzoko autobus horri, zeinaren bidez pertsona transexualak are gehiago gaitzitu eta estigmatizatzea bilatzen baita–, kanpainak bultzatu izan ditu abortatze-eskubidearen aurka,

sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aurka eta enbrioi-zelulen bidezko ikerkuntzaren aurka (baita xede terapeutikoz egindakoaren aurka ere), bere etika ultrakontserbadore zurrunetik aldentzen den oro debekatzeko beste ekimen batzuen artean.

Onura publikoaren deklarazioak, aitortza moral eta sinbolikoa izateaz gain –eta, gure ustez, elkarte hori oso urrun dago halakorik merezi izatetik–, berekin dakar elkarte horri dohaintza egiten diotenen zergak arindu ahal izatea beren errenta aitopenean; dohaintzan emandako lehen 150 euroen kasuan, % 75; eta hortik gora emandako zenbatekoen kasuan, % 35. Kalifikazio horrek, praktikan, bultzada handia eman zion Hazte Oír elkarteari; izan ere, 2012an 1,5 milioi euro inguruko dirusarrerak izatetik 2015ean 2,6 milioi euroko dirusarrerak izatera igaro zen.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamenak aurkezten ditugu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

– Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Hazte Oír elkarteari Barne Ministerioaren bidez onura publikoaren deklarazioa ken diezaion.

– Nafarroako Parlamentuak erakunde publiko eta pribatu guztiak premiatzen ditu –berezi, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua– egin beharreko urrats guztiak egin ditzaten LGTBI+ pertsonen eskubideak osorik aitortzeko, arreta berezia jarrita adingabe transexualek diskriminatuak ez izateko eta beren errealitatearen normalizazioarako eta ulermenerako daukaten eskubidean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 22an

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Adolfo Araiz Flamarique, Mikel Buil García, Nuria Medina Santos eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua pozik agertzen da bermatzen ari delako nafar ikasle guztiak D ereduan ikasteko duten eskubidea.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa erretiratu egin dutela. Mozioaren bidez Nafarroako Parlamentua pozik agertzen da bermatzen ari

delako nafar ikasle guztiak D ereduan ikasteko duten eskubidea. 2017ko otsailaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza